



## Gai zerrenda

**Eguna:** 2009-ko Ekainaren 3-a

**Hasiera ordua:** 19:00

**Amaiera ordua:** 20:30

**Gai zerrenda:**

1. 08-09 denboraldiko datuen aurkezpena
2. Eskola kiroleko E1 egitasmoaren begiraleen erregularizazioa
3. Pilota egitasmoaren aurkezpena
4. 09-10 denboraldiko funtzionamendu irizpideak
5. 09-10 denboraldiko proiektu eta berrikuntzak
6. Eskakerak eta galderak

1. Jarduera fisiko antolatuaren eta bazkideen inguruko datuak aurkeztu ziren.

2. E1 egitasmoaren begiraleen kontratazioaren ingurukoak aipatu dira, hurrengo denboraldiari begira gauzatuko da.

3. Hurrengo denboraldian gauzatuko den benjamin eta alebin mailako pilota egitasmoa aurkeztu da (Girizia Pala Taldeak, Oiarpe Errebote taldeak, Oiarpe K.E.-k, ikastetxeak eta udalak parte hartu dute honen garapenean).

4. 09-10 denboraldirako funtzionamendu irizpideak aipatu dira:

- Datu basean datuak Azaroa amaiera, Abendua hasierarako sartzea nahi da.

- Ahalik eta datu gehien jaso nahi dira: entrenatzaileen egoera, kuotak, ordutegiak...

- Hurrengo denboraldian 3 Kirol Kontseilu egingo dira: Iraila amaiera aldera, Otsaila partean eta Ekainean.

5. Alkateak aipatutakoak:

- Hurrengo denboraldian, **diru laguntzak %10 jaitea** aurreikusten da gutxi gora behera; hori da helburua.

- **Azarorako**, talde bakoitzak bere **aurrekontuak** aurkeztea eskatuko da.

- Iturriotz eta Gurutzeko pilotalekuen egokitzapenak, estatuak emandako laguntza zehatz batzuekin egingo dira (ezin dira beste ezertarako erabili )

- **Elkarteentzako Elorsoron sortuko den lokalari** buruz: **aurten** amaitzea espero da. Erabiltzaile guztien artean, **arautegi bat** finkatu beharko litzateke, egutegia, ordutegiak...finkatzeko. Horretarako **Irailako Kirol Kontseiluan Talde Operatibo bat sortuko da.**

- **Hautzaroko pilotalekuaren itxidura ez da aurten egingo**, krisia dela eta.

## Azalpenak

**6. Eskaerak eta galderak:**

- Oiarpe Errebote Taldeko ordezkariak, **Haurtzaroko pilotalekua** ixtearen inguruan, aipatu zuen **garrantzitsua** dela, pilota egitasmoaren proiektua aurrera eraman zedin. Noiz egingo den galdetu zuen eta alkateak esan zion ezin zezakeela datarik aurreratu, baina zaila ikusten zuela hurrengo denboraldian egitea.

- Oarsoaldea Igeriketa K.E.-ko ordezkariak eskatu zuen, **Oiartzungo talde handien artean, analisi zehatz bat** egitea, entrenatzaileen egoera, kuotak, ordutegiak, diru laguntzak... barneratuko dituen. Udaleko ordezkariak, egin behar den gauza zela esan zuten, talde guztien artean egin beharko litzatekeena (horretarako datuak behar dira).

- Oiartzungo Saskilagunak S.K.T. -ko ordezkariak aipatu zuen, interesgarria izango litzatekeela **pilotalekuan saskibaloia marraztea**, saskiak jartzea... baita eskubaloirako ere, kiroldegia horren betea egon ez dadin eta irtenbide bat emateko.

Erabakiak

Tokia eta  
eguna

Oiartzunen, 2009-ko Ekainaren 3-ean

Idazkaria

Sinadura

Jon Aristizabal